

0.- SARRERA

Duela pare bat egun hasi zen eguraldia epeltzen eta berehala hasiko gara pentsatzen sutondoa pizten berriz. Beno, toki hauetatik dagokiona da... Bitartean, espero dezagun datorren negua aurrekoa baino hobea izatea (ez da zaila izango) eta Bintze errekek "ateratzeko gogorik" ez izatea.

Urrietaren sarrera horren gogorra ez izateko saiatzeko, Bidankozarteko beste zenbaki bat iristen da, aintzineko kontuen dosi on batekin, ahaztutako gertaera eta jolasak, bitxikeriak, etxe eta tokien izenen zergatia ezagutzeko. Ale berri honekin, gainera, agian gure etxetan edo kaleetan dauden ohiko gauzei begiratzeko jakin-

mina piztuko zaigu aldizkaritxo honetan haien inguruan irakurri ondoren.

Gauza bat edo bestea, ziur interesezko zerbait aurkituko duzuela. Goazen, bada, edukiekin.

1.- HISTORIA APURRAK - BIDANKOZEKO NEKAZAL OGASUNA 1613AN

Data hauen inguruan baina duela lau mende, 1613ko irailaren 16an, errege-eskribau bat (garai hartako notarioa) Bidankozera heldu zen Erregearen aginduz, bizilagun bakoitzak zeuzkan lur eta abere kopurua eta horien balioa ezagutu eta horren oharrak hartzeko. Hori guztia ondorengo zergetan eragina izango zuen, une hartako mandatariei hori baitzen axola zien gauza bakarra. Aurreko urtean, 1612an, beste mezulari bat igaro zen, herritar bakoitzaren etxeak zeukan balioa ezagutzeko. Eta oraingoan, Bidankozeko laborantza-aberastasuna (lurrak eta abereak) ezagutu nahi zuten, eta horri esker duela 400 urte bidankoztarren bizimodua eta bizibidea nolakoa zen jakiteko aukera ematen digu.

Izan ere, duela lau mende Bidankozek jada 72 etxe zituen eta, gutxi gora-behera, duela bi hamarkada arte ia ez da aldatu. Hori dela eta, Bidankozeko etxe ia gehienak beteta ezagutu dituztenek, 1613tik bizimodua asko aldatu zen alderatu ahalko dute.

Etxe aberats eta pobreenaren artean diferentzia izugarriak baldin badaude ere, horren inguruko hainbat datu orokor ematen saiatuko naiz.

Duela lau mende, Bidankozen mundu guztiak zeukan lantzeko lur sailen bat, horien batez besteko azalera 21 errege-lurretakoa zen, bi hektarea baino pixka bat gutxiago. Ia lau etxetik hiruk gurdi-abere bat zuten (zamari bat, lanerako erabiltzen zen zaldia, mando bat edota astar bat eta behi bat. Ia etxeen erdiak idi bat zuten eta erdiak ardi-azienda zuen, 84 ardi batez beste eta artalde bakoitzean 43 bat bildots. Honez gain, ia etxe guztietan txerri bat zegoen. Ahuntzei dagokionez, sei etxetatik bakar batek soilik zituen eta etxe bakar

batek zeukan artalde handi bat 72 ahuntzetakoa.

Guztira Bidankozen 1.540 errege-lur zeuden, 30 zamari, 17 behor, 7 moxal, 15 idisko, 3 mando, 14 astar, 47 idi, 83 behi, 41 zekor eta 12 txahal, 3.115 ardi, 1.509 bildots, 110 ahuntz, 13 antxume, 100 zerri eta 25 txerrikume.

270 urte geroago, 1883ko katastroan, zenbakiak ez dira oso ezberdinak: 13 zamari, 21 mando, 34 astar, 55 idi, 127 behi, 61 txahal, 2.854 ardi, 1.476 bildots, 15 ahuntz, 2 antxume eta 51 zerri.



Badirudi denbora aurrera joan ahala, zaldi gutxiago baina asto gehiago egon zirela, behi gehiago baina ahuntz gutxiago, ardi kopuru berdintsua eta zerri kopuruaren erdia. 1883ko datuak engainagarriak izan daitezke, herria oraindik ez baitzen II Gerra Karlistatik indarberritu, hau 1876an bukatu baitzen, baina hiru mende horietan zehar bizimodua zeinen gutxi aldatu zen erakusten digu. Egondako aldaketa bakarretako bat, nabaria izan bazen ere, basogintzaren handiagotzea izan zen, XVIII mendetik aurrera almadia kopuruaren handiagotzearekin batera.

1613ko dokumentuarekin amaitzeko, ohar pare bat: lehen aipatu bezala, jabeen artean diferentzia nabarmenak zeuden. Horrela, 450 buruko eta 300 bildotsen artaldea handiena zen. Halabeharrez, horren jabea alkatea zen eta ez da

kasualitatea, izan ere, dokumentuak adierazten duen moduan, udal-batzak bere ondasunekin auzo-ondasumetan gertatzen ahal ziren gauzen aurrean erantzun behar zuten, hortaz edonor ez zuten baldintza hori betetzen.

Beste alde batetik, bakarrik bizi ziren emakumeen egoera (bai alargunak, bai ezkongabeak) oso ezegonkorra zen gizarte hartan. Modu honetan, alargunak ziren 13 emakumeetatik, dontzeila (ezkongabeak) edota inoren emazteak ez direla aipatzen ez den horien artean, soilik batek dauka batez bestekoak baino jabetza handiagoa eta beste bat horren pareko dabil. Gainontzeko 11 emakumeak, bat bataz besteko aberastasunen azpitik dago, baina nahiko gertu, eta beste hamarrek ez zuten ezta batez besteko aberastasunaren laurdena ere, hortaz, herriko emakumerik txiroenak ziren.

Azkenik, 1613ko agirian agertzen diren hainbat abizenen aipuak. Batzuk 400 urte geroago Bidankozen mantentzen dira (Perez, Salbotx, Sanz, Urzainki, Mainz edo Hugalde/Hualde), beste batzuk ez, nahiz eta etxe-izen bezala oraindik mantentzen diren (*Inguizena, Lengorna, Arotx, Rakax, Algarra edota Maisterra*). Beste batzuk 1613 eta gaur egun artean desagertu dira, baina bere garrantzia izan zuten baita ere Alcat, Portaz, Unaia eta Bertol). Eta beste batzuk Bidankozen egon ziren eta arrastorik utzi gabe desagertu egin ziren, besteak beste, Adamiz, Ripalda, Ayssa, Gárate, Garzetz, Mendi, Guillén, Zamargilea, Esparz, Torrea edota Arregi.

Badirudi, bada, duela hamarkada batzuetara arte ez zela aldaketa handiegirik egon. Izan ere, hiru mende ez baitira ezer!!!

2.- HIZTEGI BIDANKOZTARRA - SUKALDEA

Oraingoan, eta tokiko kontu huts batengatik, Hiztegiko atala pixka bat laburrago izango da. Eta sua pizteko garaia gainean dugula ikusita, sukalde/sutondoko tresnez arituko gara:

Burro: Burruntzi;

Elar: Pertzak suaren gainean izateko kakoa;

Gaiato: Euskarria eta angelu zuzenean tolestuta duen burdina, sukaldeko txingarrak astintzeko erabiltzen dena;

Gerren: Burruntzi, gerren;

Kujar: Janarirako zalia;

Kutxatero: Goilarategi, goilarak zintzilikatzeko edo bertan uzteko ontzia;

Rasera: Bitsadera;

Trebedé: Lapikoak txingarren gainean jartzeko erabiltzen den tripodeta;

Tupin: Metalezko lapikoa, forma ezberdinak izan ahal dituen baina beti 3 hanka dituen, gisatzeko erabilia;

Txofeta: Latorrizko zamau-babesa, zortzi bat hatz altuerakoa, bi euskarriekin, mahaian bere gainean lapikoak, kazolak edo zopa-ontziak jartzeko erabiltzen dena.

Txutxa: Ardo zahatoko muturra ixten duen piezari ematen duen izena;

Zundo: Enbor txiki eta hankaduna haragia zatitzeko. Pikador ere deitzen dute;

3.- HEMEROTEKA - KONSTANTINOKO BAKEAREN 16. MENDEURRENA

Duela 100 urteko urrietan, 2013ko abentutxikerren 6ko *Diario de Navarra* Bidankozeko ospakizun erlijioso baten berri ematen zen: Konstantinoren Bakearen 16. Mendeurrena.

Baina, zer zen ba, Konstantinoren Bakea? Zer dela eta ospatzen jarraitzen zen 1600 urte eta gero? Laburki esanda, kristauak bere erlijioarengatik jasaten zuten jazarpenaren bukaera da, ostera,

Erromatar Inperioaren erlijio ofizial bilakatu zena.

Albisteari dagokionez, kontuan hartzeko hainbat xehetasun daude. Bata, agintari guztien parte hartzea, erlijioak orduko gizartearengan zuen pisuaren erakusle dena.

Beste adierazgarri bat, herriko plazan kokatua izan zen "gurutze izugarria" argindar elektriko argizatua egotea izan

zen, nolabait ere urte horietan berritasun bat zen Bidankozen.

Azkenik, ospakizunaz arduratzen zen erlijio gizona "Santiago Lanz-en [Sanz esan behar zezaken] *balkoian*" predikatu izana aipatzekoa da, hau da, *La Santa* etxean, 6 urte aurretik eraikia izan zena, dudarik gabe, parerik gabeko etxea plaza guztiarendako hitz egin nahi zenean.

Han revestido grandísima solemnidad los actos religiosos que se acaban de celebrar en esta villa en conmemoración del XVI centenario de la paz de Constantino, consistentes en un triduo con sermones á cargo del R. P. Bernardino de Eraul (capuchino).

Ayer por la mañana se repartió el Pan de los Angeles á más de 300 personas, habiendo resultado un acto muy conmovedor. En primer lugar se acercó á la Sagrada mesa el ayuntamiento en pleno, seguido por el señor Juez municipal y de todo el vecindario sin excepción.

Por la tarde y á continuación de las vísperas se hizo una procesión por todo el pueblo y una vez llegada á la plaza pública, se congregó todo este vecindario en derredor de una soberbia cruz *ad hoc* colocada con una hermosa iluminación eléctrica, habiendo sido cantado por todos, el «Firme la voz.»

A continuación, y del balcón del hermoso edificio de don Santiago Lanz, dirigió la palabra el R. P. al numeroso auditorio, dando fin á continuación con otro sermón de despedida en la iglesia.

Muy bien por el P. Capuchino y por el pueblo de Vidángoz. El primero estuvo durante todos los días incansable, predicando dos y tres veces por día con suma elocuencia y claridad. Y el segundo atento siempre á las indicaciones de aquel, dando ejemplo digno de alabanza, asistiendo á todos los actos con todas las autoridades al frente.

Mi humilde enhorabuena á todos.

El correspondal

3—XI—13

4.- TOPONIMIA (LEKUEN IZENAK) - BARAKU

Parada honetako toponimoa nahiko ezaguna bada, izan ere, herriitik bizpahiru kilometro hegoaldera dagoen guneari egiten dio izena, Bintze ugaltxaren ondoan, Bidankozeko hainbat etxek (*Jimeno, Ornat, Diego...*) baratza bertan daukatelarik edo eduki dutelarik.

Hor nonbait, *Baraku*-ren esanahia ziurrenik zerikusirik izanen du erabilera horrekin, baratza erabilera horrekin, alegia, Euskaraz "*baratze*" hitza bera erabiltzen baita. Hau honela izanik, *Baraku* hitzak "*baratzen gunea*" esan nahiko luke, *bara(tze) + -ku* (aurrizkia).

Gaian jantziak dauden beste pertsonen aburuz, esanahiari dagokioneko beste aukeretako bat honakoa litzateke: baliteke

Baraku hitza *Ibarraku* hitzaren eraldaketa linguistikoa izatea: *Ibarra + -ku* (aurrizkia), hau da "*ibarrakoa*". Esanahi horrek ere zentzua izan lezake.

Bada "*bara*" edo "*baratze*" partikularen erabilera itxuraz baratza bat bideragarri ez den lekutan azaltzen duen hirugarren kasu bat (adibidez *Baratzea* mendia edo "*Pico de los Buitres*" [*Barakoa* bezala ere ezaguna] *Lakartxelaik* gertu). Honek *baratu* euskal aditzari egiten lioke erreferentzia, nominalizatuta *baratze* izango zelarik. "*Gelditzea*" edo "*atseden hartzea*" da aditz honen esanahia, antzinen ehorzketak egiteko erabiltzen ziren lekuei erreferentzia eginez, hala ere, gure kasuan lehenengo bi kasuak izanen lirateke proposenak.

Esanahia eta baratzak alde batera utzita, *Baraku* bere zubia dela eta ezaguna ere bada, izan ere, 1675ko notario-agiri batean izendatzen da, hau honela izanik, agerikoa da zubia errepeidea baino askoz ere zaharrago dela.

Bukatzeko, toponimo honi men egiten dion koplak bat, Bidankoze Burgirekin eta ez Igarirekin komunikatuko zuen errepeidea egitea erabaki zutenean kantatzen zena: "*Carretera de Vidángoz, carretera mal pensada: los de Txestas a Baraku y los de Burgui a Sagarraga*".

Baraku, bere baratzak eta bere zubia, historiari beteriko beste paraje bat.

5.- OIKONIMIA (ETXEEN IZENAK) - DIEGO

Etxeen izenen inguruko hirugarren buelta honi *Diego* etxearekin emango diogu hasiera. Etxe hau, tradizionalki *Iriburua* auzoaren hirugarren etxea izan da.

Ziurrenik zaharragoa bada ere, *Diego* etxearen jatorriaren inguruan data bat bakarrik eman daiteke ziurtzat: 1724 urte. Data hau gaur egun ezagutzen dugun etxeko lehio batean ageri da eta eraikina egin zen urtea ez bada, bertan egin zen azkeneko berritze garrantzitsuarena izan daiteke.

Garai horretako etxeak tamaina txikiagoa izango zuen eta ziurrenik jatorrizko etxearen aurrekaldea, *Salsipuedes* kalera ematen zuena (gaur egun *Diego* etxeko patioa), simetrikoa izango zen. Ondoren gehituko zitzaizkion *Montxonena* etxearen atzetik gelditzen den aldea eta jatorrizko etxaurrearen ezkerrealdetik patioa ixten duen aldea.

Baina *Diego* etxeko jatorrizko fatxadak baditu hainbat xehetasun interesgarriak. Lehenengoa sarrerako atearren gainean dagoen harria:



Bertan bi lauburu ageri dira eta biak daude kontrako orientazioarekin; bien artean gurutze baten gainean dagoen koro bat dago. Gurutzearen oinarrian IHS idazkia irakur daiteke, Bidankozeko beste hainbat etxetan ageri dena. Bere esanahia *Jesus Hominum Salvator* da, hau da, "*Jesus, gizakien salbatarea*". Lauburuak eguzkiarekin erlazioatutako sinboloak dira, ilumaldia etxean sar ez dadin.

Azpimarratzekoa den beste elementu bat, etxaurrea noiz egin zen adierazten duen harria da, erdialdean kokatuta dagoen lehioaren goikaldean (lerro hauen



gainean dagoen irudia). Idazkunaren erdian gelditzen den hexapetala (sei petaloko lorea) babes sinbolo bat da. Sinesmen astrologikoekin lotuta dago eta aitzinako kultura askotan erabilia izan zen. Apaingarri moduan askotan erabilitako sinboloa da eta horregatik *Diego* eta *Bomba* etxeetako hilarrietan ere ikus dezakegu. Kutxa batzuetan ere ageri da, sutontzietan (*Paske*) eta Bidankozeko etxeetako hainbat elementutan.

Falta zaigun azken xehetasuna 1724an etxea kokatzen duen lehioaren apalean erdi ezkutatuta dago. Harrian egindako aurpegi bat da eta atearren gainean kokatuta dago (orrialde honen azpian ikus daitekef). Ematen du horrelako elementuak garai horietan etxeetan jartzen zirela begizkoa etxe barrura sar ez zedin, harrian egindako aurpegia nolabaiteko zaindaria balitz bezala.

Xehetasun hauek guztiak bitxikeriak besterik ez lirarteke izango, 1724. urtean Bidankozeko apaiza zen Miguel Hualde bertan bizi izan ez balitz (eta ondorioz berak egin behar izanen zituen berritze lanak). Bitxia behintzat aipatu ditugun eta jatorri paganoa duten elementuak aurkitu izana pertsona erlijioso baten etxean. Horietako asko gainera sineskeriarekin erlazioatuta daude.

Gauza hauek alde batera utzita, etxearen izenaren inguruan arituko gara jarraian. Edo hobeto esanda, izan dituen izen guztien inguruan arituko gara. Izan ere, *Diego* etxea baino lehenago, nire aitak (bertan jaioa baita) esaten zidan bezala *Don Miguelna* edo *Don Mikelna* zen, lehenago aipatu dugun On Miguel Hualderen omenez. Nik esaten nion "*Nola izango da On Miguelna? Miguelna izango da!*". Eta berak erantzuten zidan: "*Baina apaiza zen eta horregatik On hitza aurretik zeraman*

aurretik". Eta argi dago zuzen zebilela.

Ondoren, *Diego* etxea deitzera pasatu zen, Diego Ramon Perez Garderen izena hartuta. Gizon hau, Fermina izena zuen On Miguel Hualderen arreba baten biloba zen. Dirudienez lerro horretatik oinordetzan hartu zuten etxea, izan ere Diegoren aita Izabakoa zen jatorriz eta ama Uztarrozekoa (aipatu dugun Ferminaren alaba); antza, Bidankozen bertan ez zen oinordetzan hartu zezakeen familiako inor geratzen (edo behintzat ez zituzten horretarako egokiak ikusten).

Azkenik, azpimarratu behar da batzuk *Sotana ter-ter* deitzen ziotela etxe honi; izen hau erabiltzen zuten apaizez beteta zegoen etxea zelako. Izan ere, *Diego* etxean badago "*apaizen logela*" bezala ezagutzen den gela bat.

Apaiza eta moja dezente orain dela gutxi arte egon dira. Heldutasunera iritsi ziren Perez Goyeneche bost anai-arrebetatik lau erlijiosoak izan ziren: hiru moja, Irene, Natividad eta Guadalupe, eta apaiza bat, Santiago. Ireneren omenez jarrita dago gaur egungo etxearen fatxadan kokatuta dagoen plaka bat, *kale Nagusira* ematen duena.



Hurrengo urtean bere heriotzaren 50. urteurrena izango da eta orduan sakontasun handiagoarekin aztertuko dut gaia.

Hemen utziko dugu Diego etxeari buruzko informazioa eta ikusitakoaren arabera bere istorio luzea dauka.



6.- BIDANKOZEKO BITXIKERIAK - "KATIXOL"

Katixola Bidankozen XX. mendeko erdirarte jolasten zen haur-jolas bat zen. Azken urteotan elkarriketatu ditudan zaharretako askok jolas honetaz oroitzen ziren.

Azaltzen zidatenez, eta Iribarrenen "Vocabulario Navarro"n definitzen den moduan, *Katixola* (han "Katirol" idatzi zuen, baina ziur aski transkribapen akatsa da) "irulario haur-jolasari ematen dioten izena da. Bertan bi jokalarik hartzen dute parte. Haietako batek borobil bat markatzen du lurrean eta pala formazko oholtxo batekin [edo makil batekin] kolpe eman [kolpeari Bidankozen "Klasko" esaten diote] eta ahalik eta urrunen botatzen du makiltxo motz eta bere muturretan zorrotzu bat ["Katixol" izena duena, eta jokua izendatzeko balio duena].

Makiltxo erori zen toki beretik, beste jokalariek eskuarekin botako du borobilean sartzen saiatzen (eta beste jokalariek saihesten saiatuko da bere pala edo makilarekin). *Makiltxo* borobilean sartzen lortzen badu, jokalariek haien postuak aldatuko dituzte. Lortzen ez badu, pala duena horrekin makiltxo kolpatu bere muturretako batean eta, airean dagoenean, beste kolpe bat emango dio, berriro ahalik eta urrunen botatzen. Eragiketa hau hiru aldiz (hortik dator irulario izena) besterik ez ahal da egin, eta makiltxo erortzen den tokitik, bigarren jokalariek berriro borobilerantz bota behar du. Lehenengo jokalararen (palea daukanarena) edozein jaurtiketan bere

aurkariak makiltxo airean hartzen lortzen badu, partida irabazi eta postuak aldatu egingo dira".



Evaristo Urzainquiren (Lengorna) hitzetan, Bidankozen utzi zioten jolas honetan jolasteari *katixol* batek norbaiten begian jo eta maisuak jolasa debekatu zuelako.

Eta hauxe zen *Katixola*, gaur egun ahaztutako jolasa, baina garai batean oso zabaldua zegoena Nafarroan, orokorrean Irulario izenarekin, Bidankozen *Katixol* eta Burgin *Katuzil*, eta antzinako haurrei horrenbeste tarte onak pasaraziko zuena.

7.- MARIANO MENDIGATXAREN GUTUNAK

Mariano Mendigatxaren gutumen birbegiratzea 1903ko abentuan utzi genuen. Bertan, bai zuhaitzez eta zuhaikez bai gizonak "etxean nagikeriatan" mantentzen zituzten elurteez hitz egiteaz gain, aurreko zenbakietan aipaturiko gaiak biak, batetik orduko gizartearen pentsamoldea orokorrean eta bestetik Marianoren pentsamoldea bereziki, eta orduan nola bizi zen ulertarazten digun xehetasun batzuk aditzera ematen digu.

Ohikoa dena baino lehenago eroritako elurteei jarraikirik dio "Mendiko lanak erdi eginik harrapatu digu. Ez du jendeak asko iraunen beharrak zenbatzen hasi arte". Badirudi bera ez dela beharretan ibiliko direnen artean zenbatzen, baina agerian geratzen baita orduko jendea noraino bizi zen eguraldiaren menpe.

Bere lagun bati bisigua bidali ziotela dio jarraian, eta nola honek berarekin zati bat partekatu zuen, eta Marianoren etxean, ere, zatitxo bana nola banatu zuten

"guztiok bisigua jan dugula esan ahal izateko" azaltzen du.

Janariaren kontua eta gero, etxeko gertakari bat: "Goizean soroko burusia ukuiluan ahaztu zaigu. Txerriak sartu dira eta puskatu digute hainbat zatitan, apurrak egina eta ia guztiz hondaturik". Hemendik ere ondorio bat baino gehiago hausnar dezakegu, bat txerriak gose ibiliko zirela edo, eta beste bat *Mendigatxa* etxean txerri bat baino gehiago zegoela, etxe "ona" zelako adierazle.

Ondoren, bere ustez, urteko garairik onena (negu gorria) datorrenaren inguruan aritzen da, lagunaren artean ematen baitute, txerria hiltzeko laboreetan. Honi jarraikirik, gogoeta bitxi bat uzten digu, itzulirik (guztia bezala, gogora dezagun eskutitzak Bidankozeko Uskaraz idatzita baitira), esaten diguna: "Txerrien kontura lodituko gara, beraiek gure kontura edo gure emandakoaren kontura loditu diren bezala".

Amaitzeko, ez dakigun egiazkoa den kontakizun baten bitartez, aurreko bi belaunaldietara arteko Bidankozen (eta orokorrean Pirinioetako arantetan) izan zen familia politikaren testigantza uzten digu: Kontatzen digu nola aita batek semeak hezten zihoan bitartean aztertzen zituen eta, beraien jarreraren arabera, helduena hautatu zuen etxearen oinordetzarako. Eta eguna iristean, esan zion: "Zu etxearendako izanen zara, eta honekin ezkontuko zara". Semeak erantzun zuen: "Ez dut berarekin ezkondu nahi". Eta aitak, apaldurik, epaitu zuen: "Ba berarekin ezkontzen ez bazara, ez duzu deus etxe honekin, ezta lanik ere, beraz ospa nire aurretik betiko".

Kontakizun gordina, baina garaiotan "adosturiko" ezkontzen ohikotasuna ikusirik, hau nahiko maiz gertatuko zen.

Bitxiak, beraz, Mariano Mendigatxak uzten dizkigun orain dela mende bateko gizarteko zertzelada hauek guztiak.

8.- BUKAERA

Eta honaino Bidankozarteko 9. zenbaki hau, hainbat gauzetarako denbora era ezberdinean igarotzen dela erakutsi, gure eguneroko gauzetan dauden sinbolo

batzuen esannahia ezagutarazi, edo antzinako haur-jolas bat oroitu diguna.

Nola edo hala, espero dut entretenimendu pixkat emana izatea horren bila zebilenari.

10. Bidankozarte, abenduan. Ordura arte, ba.